



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/15 ikasturtea

BERTSOGINTZAREN ERABILERA DIDAKTIKOA

ZORNOTZAKO LARREA ESKOLAREN

LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOAREN

6-7 URTEKO UMEEN GELA BATEAN

Egilea: Saioa Morcillo Matos

Irakasle tutorea: Txetxu Pardo Fernandez

Leioan, 2015eko ekainaren 4an

Laburpena

Proiektu honen bidez, Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan bertsogintza eta koplak lantzea posible dela erakutsi nahian, eguneroko errutinetan eta ipuin baten sekuentzializazioan bertsoak eta koplak txertatu ditut. Horretarako, hizkuntza lantzea izan da nire helbururik nagusia, taldea motibatuz eta bertsoekiko zaletasuna bultzatuz. Ebaluaketa egiterakoan, metodo kualitatiboan oinarritu naiz ikasleen garapenez ohartzeko. Azkenik, emaitzak eta ondorioak plazaratu ditut.

Hitz gakoak: *bertsogintza, ahozotasuna, koplak, eguneroko errutinak, sekuentzializazio didaktikoa.*

Resumen

Mediante este proyecto, he insertado los versos y las coplas tanto en las rutinas diarias como en la secuencialización de un cuento, queriendo así demostrar que trabajar en el primer ciclo de Educación Primaria de esta manera es posible. Para ello, mi principal objetivo ha sido trabajar la lengua mediante una metodología diferente, motivando así al grupo y fomentando la afición de los versos. A la hora de la evaluación, me he basado en el método cualitativo para ver el desarrollo de los alumnos. Finalmente, he publicado los resultados y las conclusiones.

Palabras clave: *versificación, oralidad, coplas, rutinas diarias, secuencialización didáctica.*

Abstract

By this project, I have inserted the verses and couplets in the daily routines as well as in the sequentialization of a tale to show that it is possible to work this way in the first cycle of Primary School. My main aim is to work the language by means of a different methodology, motivating the group and encouraging the verses. To evaluate it, I have used a qualitative method to see the development of pupils. Finally, I have published the results and the conclusions.

Key words: *versification, orality, couplets, daily routines, didactic sequentialization.*

AURKIBIDEA:

I. Sarrera	1
II. Arlo teorikoa	2
II.1 Ahozotasuna	2
II.2 Lehen Hezkuntzako 1.zikloko umeen hizkuntzaren garapena	5
III. Aurrekariak	9
IV. Metodologia	11
V. Esku- hartzea	16
V.1 Prozesuaren azalpena eta eguneroko behaketa	16
V.1.1 Errutinetako koplen eta bertsoaren prozedura	16
V.1.2 Ipuinaren sekuentzializaziorako bertsoen prozesua	17
VI. Emaitzak	19
VI.1 Gurasoen galdetegiaren emaitzak	19
VI.2 Irakasleen galdetegiaren emaitzak	19
VI.3 Bideoetatik ateratako emaitzak	20
VII. Ondorioak	21
VII.1 Hurrengo lanak	21
VII.2 Eskerrak	22
VIII. Bibliografia	24
IX. Eranskinak	27
IX.1 Galdetegiak	27
IX.1.1 Matematika irakaslearen galdetegia	27
IX.1.2 Musika irakaslearen galdetegia	29
IX.1.3 Gurasoentzako galdetegia	31
IX.2 Esku- hartzean erabilitako koplak eta bertsoak	35
IX.2.1 Errutinetako koplak eta bertsoa	35
IX.2.2 Ipuinaren sekuentzializaziorako bertsoak	39
IX.3 Ebaluaketarako bideoak	45
IX.3.1 Errutinetako bideoa	45
IX.3.2 Ipuinaren sekuentzializaziorako bertsoak	45

I. SARRERA

Aurrez aurre duzuen lan hau, Lehen Hezkuntzarako bertsogintzaren eta koplaintzaren erabilera didaktikoan datza. Zehazki, Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloaren 6-7 urteko umeengan duen eragina aztertuko da. Izan ere, Zornotzako Larrea Eskola Publikoan burutu dut practicum III-a, eta bertan, Amara Berri sistema ezarrita dagoenez, gelak kurtsoka antolatuta egon beharrean, zikloka antolatuta daude.

Horretarako, bertsoak eta koplak erabiliko ditut. Lehenik eta behin, goizeko errutinetan ezarriko dira, eta bestetik, ipuin baten sekuentzializazioan, ere. Horrela, umeen hizkuntzaren garapena aztertuz. Baliabide didaktiko honek, hizkuntza era aberatsagoan lantzeko aukera eskaintzen du, ikaskuntza esanguratsua jasoz.

Baliabide didaktiko hau aurrera eramateko, irakasleok ez gara bertsolari adituak izan behar, teknika aldetik, bertsogintzaren edo koplaintzaren arauak kontuan izanda, berauek ezartzearekin nahikoa da. Ni ez naiz bertsolaria, baina bai bertsozalea, betidanik goraipatu dut bertsolariek egiten duten lana.

Hizkuntza eta kultura lantzeko metodologia erakargarria zaidalako aukeratu dut gai hau. Izan ere, bertsoen bidez, ikasleek inkontzienteki, era dibertigarri eta motibatzaile batean, ahozko euskara landuko dute. Gainera, niretzat jarduera didaktikoak izango direnak, ikasleentzat joko antzeko ekimenak izango dira, eta beraz, ikaskuntza dinamikoagoa bihurtuko zaie, hizkuntza beste ikuspegi batetik ere landuko delarik. Horrekin batera, ulermena ere nahitaez landuko da. Zoritxarrez, askotan, ahozkotasuna, alde batera uzten da eta ez zaio ematen benetan duen garrantzia. Beraz, nik ez dut alde batera utziko eta nire ikerketaren barnean aztertuko da.

II. ARLO TEORIKOA

II. 1 AHOZKOTASUNA:

Ahokotasuna idazketa ezagutzen ez duen gizartearen komunikazio-sistema da, hau da, letrarik ezagutzen ez duen komunikazio sistema. Havelock-ek (1996) bere *“The Muse learns to the write: Reflections on Orality and Literacy from Antiquity to the Present”* liburuan dioen bezala, ahokotasuna idazkera baino askoz lehenagokoa da. Izan ere, gu, idazten ikasi arte, ahokotasunaren bidez komunikatzen gara.

Baina, ahokotasuna, tradizioarekin lotuta doan kontzeptua da. Izan ere, antzina, idazketa sistema ezagutzen ez zenean, ahoz aho transmititzen ziren mitoak, alegiak, istorioak, ipuinak, etab. Gertakizun hauek, kantuaren bitartez, dantzaren bitartez eta doinuaren bitartez transmititzen ziren kultura guztietan, adibidez, bertsoen bidez. Honi, ahoko literatura tradizionala deitzen zaio. *“La finalidad de la poesía oral era forjar una versión memorizable de la tradición y del régimen cívico y social”* (Havelock, 1996). Horregatik, gaur egun, horietako gertakizun asko ezagunak dira guretzat.

Esate baterako, Grezian, Homeroren *“Iliada”* eta *“Odisea”* olerki- bildumak ezagunak ditugu. Adituen arabera, k.a. VIII. mendean kokatzen dira, bera bizi izan zen garaian, hain zuzen. *“Iliadak”*, Troiako gerraren azken 51 egunetan gertatutakoa kontatzen du, *“Odiseak”* aldiz, Troiako gerran parte hartu zuen Ulises heroiaeren abenturak kontatzen ditu. Adituen arabera, olerki hauek ahoz aho transmititzen joan ziren K.a. VI. mendean idatziak izan ziren arte. Homero ahokotasunaren aitzindaria den bezala, Platon filosofoa, idazketaren aitzindaria da. Filosofo hau k.a. IV–V. mendeetan bizi izan zen eta poesiaren kontra egin zuen, idazketari indar handia emanaz eta ahokotasuna bigarren planoan utziz.

Frantzian, frantziar literaturako lanen artean *“La Chanson de Roland”* aurkitzen dugu, adituen ustez, Turolde izeneko gizon batek idatzitakoa XI. mendean. Berau Espainian ere, *“El Cantar del mio Cid”* dago. Hau, kanta bat da eta espainiar literaturako lehen lan

narratibo luzea da, egile ezagunik gabekoa. Azkenik, Euskal Herriari erreferentzia eginez, "Bereterretxen khantoria" daukagu. Zubererazko balada da hau, Jean Jaurgainek idatzitakoa. Lan hauek guztiak, herriz herri kantuen bidezko transmisioari esker heldu dira gureganaino idatziak izan ziren arte.

Egun, badago jendea olerki eta kanta hauek oroimenean gordetzen dituen, beraz, ahozko literatura tradizionalaren barruan sar ditzakegu. Izan ere, ahozko literatura tradizionala, noizbait norbaiten ahotik jaulkitako zerbait da kolektibitateak gorde duena. Belaunaldiz belaunaldi olerki hauek ondo transmititzea oso garrantzitsua izan zen, besteak beste, kulturak eta historiak bere zentzua ez galtzeko. Horretarako, ezinbestekoa zen errepikatzearen errepikatzeaz baliatu ziren informazio guztia memorian sartzeko. Horrela sortu zen poesia (Havelock, 1996).

Beraz, bertsoak eta koplak, ezinbesteko papera betetzen dute idazketa ezagutzen ez duten gizarteetan. Izan ere, bertsoen eta koplaren ezaugarriak esker, hala nola, doinua, errima eta neurria, gertakizunak memorian errazago gordetzen dira. Horregatik, arestian aipatutako lanak, ahoz aho transmititzen ziren olerkien edo kanten bitartez: *"las sociedades orales asignaban comúnmente la responsabilidad del habla conservada a una asociación entre poesía, música y danza"* (Havelock, 1988). Poetak, olerkiek zuten funtzio didaktikoak kontzienteak ziren (Havelock, 1996).

Baina, bertsoak eta koplak, antzeko kontzeptuak diren arren, ezberdintasuna badago euren artean, besteak beste, koplak, bertsoaren erdia bezala dela (Amuriza, 1995).

Alde batetik, zortziko txikia dago. Neurri honetako bertso batek, zortzi lerro ditu eta lerroak binaka doaz, beraz, lau bikote. Bikote bakoitzari puntua deitzen zaio eta puntu bakoitzeko azken hitzari oina. Puntuko lehen lerroak zazpi silaba daramatza eta bigarrenak sei. Beraz, zortzi lerro, lau puntu 7-6 silabakoak eta lau oin. Beraz, koplak txikia, zortziko txikiaren erdia da. Lau lerro, bi puntu 7-6 silabakoak eta bi oin.

Bestalde, zortziko handia dago eta gauza bera da. Baina, 7-6 silabako puntuak eduki beharrean, 10-8 silabako puntuak ditu. Beraz, koplak handia, zortziko handiaren erdia

da. Lau lerro, bi puntu, 10-8 silabakoak eta bi oin.

Berdin gertatzen da bertsolaritza/bertsogintza eta koplaritza/koplagintza kontzeptuekin, antzekoak izan arren ezberdintasun nabarmena daukate. Izan ere, bertsolaritza eta koplaritza deitzen zaie bat-batean, momentuan botatzen diren bertso eta koplei. Bertsogintza eta koplagintza, ordea, lehenagotik bertsoak eta koplak prestatzeari deitzen zaio. Hau da, bertsoak eta koplak aurretik pentsatuta ditugunean (Amuriza, 1995).

Beraz, bertsoak eta koplak ezinbestekoak dira idazketa ezagutzen ez den gizarteetan ahoz komunikatu ahal izateko.

Gainera, ahozkotasanak, bere psikodinamika sortzen du. Psikodinamika, psikologia egiteko modua da, eta beraz, gizarte batek idazten ez badaki, psikologia beste era batera gauzatu egingo da. Ahozkotasanaren psikodinamikak, ezaugarri batzuk ditu eta W. J. Ongek (1987) *“Oralidad y escritura”* liburuan honako hauek aipatzen ditu: Memoria, hitzaren indarra, adierazpide modu jakina, gordetzaila eta tradiziozalea, esperientziatik hurbil, ez abstraktua, agonistikoa, enpatikoa eta homeostatikoa. Ezaugarri hauek guztiek, asko laguntzen dute kontakizunak oroimenean gordetzen.

Baina, Zumthorrek, ahozkotasan hitza oso zabala denez, hainbat kategoriatan sailkatu zuen ahozkotasan kontzeptu hau: *“Ahozkotasan primarioa: idatziarekin harremanik ez duena; ahozkotasan nahasia: idatziarekin batera ingurune soziologikoan dagoena, idatziaren eragin partziala; ahozkotasan sekundarioa: idatzia ahotsaren gainetik dagoenean; eta ahozkotasan arartekotua: gaur egun irrati, diska eta gainerako komunikabideetan ezagutzen duguna”* (Zumthor, 1985).

Aurreko guztia kontuan izanda, idatzizko adierazpena eta ahozko adierazpena batera bizi dira idatzizkoa sortu zenetik, eta zoritxarrez, hartatik hona, eskoletan hizkuntzak irakasteko orduan, garrantzi handiagoa ematen zaio idatzizkoari ahozkoari baino.

“Jakitunen artean testuek duten agintea nabaria egiten da gauza batean: gaur arte, ahozko artea, den bezala agertzeko, ez da sortu kontzepturik, ez era zehatzean aditzera emango duenik, eta are gutxiago era dotorean, idatzizkoari heldu gabe (kontzienteki zein inkontzienteki). Eta hori horrela da, nahiz eta idatzizkoaren aurretik milaka eta milaka urtetan ahozko forma artistikoak osatu diren, bestearekiko batere loturarik gabe” (Ong, 1987).

Eskoletan ahozkotasuna lantzea oso garrantzitsua da. Izan ere, ahozkotasuna lantzeak hizkuntz erabilerarekin zerikusi zuzena duten hainbat aspektu: aintzat hartzea, lantzea edo garatzea dakar ezinbestean. Hizkuntza erabileraren erabileraz ikasi eta hobetzen da. Erabiltzen ez den hizkuntza, aldiz, kamustu egiten da, eta atzerakada honek motibazioan ere eragin negatiboa du.

II.2 LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOKO UMEEN HIZKUNTZAREN GARAPENA

Proiektu hau, 6-7 urteko umeekin garatu nuenez, adin horietako umeek dituzten ezaugarriak aztertzeko, zenbait adituren hitzak kontuan hartu ditut. Horrela, adituek diotenaren eta proiektu honen aurrean ikasleek izandako erantzunaren arteko erlazioa ikusteko aukera izango dugu.

Piageten arabera, 2-7 urte bitarteko umeek etapa aurre-operazionalen daude. Ume hauen memoria ez da nagusia bezain fidagarria. Izan ere, istorio bat kontatzerakoan adibidez, detaile zehatzetan zentratzen dira, gainontzeko informazio guztia alde batera utzita, eta gero, erraztasunez ahaztu egiten zaie. Dena den, mundua nola ulertzen duten eta euren oroitzapenen antolaketaren arabera, ezinbesteko oinarria da umeek gauzak oroitu ahal izateko (Piaget & Inhelder, 1972).

Gainera, memoriari buruzko ikerketa batean, umeak nagusitzen ziren heinean euren memoria hobetu egiten zela ikusi zuten. Are azkarrago memorizatzen zuten informazioa irudi bisualak erabiliz gero. Horrez gain, estrategiak erabiltzeak ere, memoriari lagundu egiten zion. Hala nola, errepikapenaren estrategia (Papalia eta beste, 2004).

Bertsogintza eta koplak 6-7 urteko gelan lantzerakoan, ezaugarri hauek argi eta garbi ikusi nituen. Alde batetik, memoriari dagokionez, bai errutinekin baita ipuinaren sekuentzializazioarekin ere, ume gehienek egun batean zekizkiten koplak eta bertsoak biharamunean ahaztu egiten zitzaizkien. Gutxi batzuk ziren beti akordatzeko zirenak. Eta beraz, azken hauek ziren bertsoak ahaztu egiten zitzaizkienei gogorarazten zizkietenak. Hauei esker taldea aurrera zihoan.

Bestalde, estrategiei begira, ipuinaren sekuentzializaziorako irudiak erabili nituen. Horrez gain, egunero errepikatzen genituen errutinetako eta ipuinaren sekuentzializaziorako koplak eta bertso guztiak.

Egia esanda, eurentzako irudiak eta eguneroko errepikapenak beharrezkoak ziren informazioa memorian mantentzeko. Ezinbestean, irudiaren eta memorian zuten informazioaren arteko erlazioa sortzeko.

Gaitasun linguistikoei dagokienez, etapa aurre-operazionalerako umeak ahozko komunikazioa nahiz idatzia, hobeto ulertzen eta interpretatzen joaten dira nagusitzen diren bitartean. Baina, lan hauek burutzea, natiboak ez diren umei zailagoa egiten zaie (Papalia eta beste, 2004).

Hala eta guztiz ere, 6-7 urteko umeek 2.600 hitz inguru erabiltzen badakite eta 20.000 hitz inguru ulertzen dituzte. Gainera, hizkera, helduenen hizkeraren antzekoagoa da. Izan ere, esaldi luzeagoak eta konplexuagoak erabiltzen dituzte. Baina oraindik, jakiteko gauza asko gelditzen zaie, adibidez: ahots pasiboa, baldintzazko esaldiak, aditzak ondo jokatu, etab. (Chomsky, 1969).

Egia esan, Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan, bertsogintzaren erabilera didaktikoa lantzen hasi nintzen lehenengo momentutik ikusi nuen nortzuek ikasiko zituzten koplak eta bertsoak arinago eta nortzuek astiroago. Lanaren sarreran aipatu bezala, eskola publikoan eraman nuen aurrera proiektu hau eta bertan atzerritar asko zeuden. Horietako askok, ez zuten euskara besteek bezain ondo jakin eta normala da. Izan ere, euren etxeetan eta kalean euren ama-hizkuntza erabiltzen zuten. Beraz, eskolan, euskara lantzerako orduan, euskaraz bizi zirenek baino arazo gehiago zituzten.

Gainera, atzerritar batzuen gurasoek ez zuten Euskal Herriko hizkuntzan interes handirik jartzen, beraz umeez, gurasoen jarrera ikusita, are gutxiago.

Hau horrela izanda, hizkuntzan hobeto zihoazenek, hau da, jada irakurtzen, idazten eta nahiko ondo berba egiten zekitenek, bertsoak eta koplak buruz kantatzeko kapaz izan zirela ohartu nintzen. Gutxi batzuek, ordea, ez zuten hizkuntza ondo ulertzen, interes gutxi jartzen zuten, horregatik, aspertu egiten ziren.

Aldi berean, hizkuntzaren hobekuntzarekin, pragmatika ere hobetu egiten da. Praktikan, komunikatzeko, hizkuntzaren erabilera da pragmatika, hau da, gauzak nola kontatu, zelan jarraitu, noiz bukatu, etab. Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko umeez, normalean esperientzia pertsonalak kontatzen dituzte, baina ipuin edo pelikula baten gertakizunak kontatzeko ere gai dira. 6-7 urteko umeen arteko diferentzia bakarra da, lehenengo mailakoek normalean, gertatzen diren gauza konketuak deskribatzen dituztela eta bigarren mailakoak, aldiz, istorio konketuagoak kontatzeko gai direla. Adibidez, hainbat formula erabiliz: bazen behin, hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan, etab. (Papila eta beste, 2004).

Nahiz eta ipuina denek ikasi zuten, abestu ondoren, asko, ipuina kontatzeko gai ziren eta energia handiarekin, pozik, kontatzeko irrikaz zebiltzan. Atzera bueltatzen gara, eta hizkuntza ulertzeko eta idazteko arazoak zituzten ume berberak ziren ipuina kontatzen ez zekitenak. Beraz, batzuk, ipuina kontatzerako orduan formulak eta guzti erabiltzen zituzten bitartean, beste batzuk ez ziren gai gauza askorik kontatzeko, euskaraz hitz egiteko ohitura faltagatik.

“Desarrollo psicológico y educación: psicología evolutiva” liburuan agertzen den bezala, egozentrismoa, etapa aurre-operazionalen umeez duten ezaugarri handienetako bat da, zortzi urtetik aurrera desagertzen joaten dena. Hau dela eta, euren ikuspuntua bakarrik onartzen dute eta ez dira gai besteen ikuspuntua onartzeko. Piageten arabera, umeez bakarrik hitz egiten dutenean edo gauzak errepikatzen dituztenean, hizkera pribatuaren edo hizkuntza egozentrikoaren seinale da eta hizkuntza sozializatuaren aurretik gertatzen da (Piaget, 1923).

Vigotskyren arabera, ordea, hizkera pribatua egozentrikoa dela dio, baina hizkuntza sozializatuaren ostean datorrela dio. Bere ustez, hizkuntza sozializatuaren ostean, umeei, pentsatu eta planifikatu egiten dituzte gauzak egin baino arinago. Hizkuntza sozializatuaren aurretik izaten den hizkuntza pribatua, komunikatzeko era espezial bat izanik. Gure “ni” horrekin komunikatzea, alegia (Vigotsky, 1978).

6-7 urteko gela barruan, ezaugarri hau momentu oro ume guztietan nagusitzen zen. Bertsoetan eta kopletan adibidez, hasieran, asko, arinago kantatzen hasten ziren besteen arreta lortzeko, bakarrik kantatu nahi zuten besteen aurrean, ipuinaren irudiak eskuetan eduki nahi zituzten euren kontrola izateko, etab.

Gero, ni ondoan egotea gustuko zutela konturatu nintzen. Izan ere, euren, babes eta segurtasuna bilatzen zuten heldu baten ondoan jartzen ziren bakoitzean. Gainera, kantatu eta gero begiratzen zidaten nire onarpena jasotzeko.

Vigotskyren ustez, umeei helduekin interakzioan egonez ikasi egiten dute eta “andamiajea” deitzen dio helduek umeei lanak egiterakoan eskaintzen dieten laguntzari. Umeari, zereginak bakarrik egiteko gai denean, “andamiaje” hori kendu egiten zaio, hots, laguntza kendu egiten zaio. Ikaskuntza mota hau, oso esanguratsua da “zona de desarrollo proximal (ZDP)” deitzen den hori gainditzeko. Hau da, umeei jada egiten dakitena eta oraindik bakarrik egiten ez dakitenaren arteko zubia da (Papalia eta beste, 2004).

"[La Zona de Desarrollo Próximo] Es la distancia entre el nivel real de desarrollo determinado por la capacidad de resolver independientemente el problema y el nivel de desarrollo potencial determinado a través de la resolución de un problema bajo la guía de un adulto o en colaboración con otro compañero más capaz " (Vygotsky, 1978)

Horregatik, oso garrantzitsua da, irakasleak, ikasle-taldea ondo ezagutzea. Besteak beste, momentu oro, laguntza egokia eskaintzeko. Kontuan izan behar dugu irakaslea dela kultura baten transmisioaren ardatza, baita hizkuntza irakastearen arduraduna ere (Dolz, 2009).

Beraz, nik, Vigotskyk esandakoa martxan jarri nuen, eta behaketari esker, goizeko

errutinak, egunero lantzen zituztela ohartu nintzen. Hau horrela izanda, haratago joan nintzen eta errutina horiek kopletan lantzea proposatu nien. Alde batetik, hizkuntza lantzeko, eta bestetik, gure kulturaren barne diren bertsoak eta koplak zer diren ezagutzeko. Ipuinaren sekuentzializazioan ere, berdina egin nuen. Umeei, aurretik zuten musikako ezagutza txikia kontuan izanik, musikaren inguruko ipuin didaktiko bat bertotan kontatu nien. Pentagrama Enea, hain zuzen. Ipuin honen bidez musika notak ikasteaz gain, pentagramako kokapena ere ikasten zuten.

Ikusi bezala, landutako guztiak lehendik zeuzkaten jakintzekin zerikusia dauka. Egin nuen bakarria metodologia aldatzea eta zailtasun maila pixka bat gehiago igotzea izan zen. Vigotskyk dion bezala, umeei laguntzen ibili nintzen eta bakarrik kantatzen ikasi zituztenean “andamiajea” kendu egin nien.

Honek guztiak, erlazio zuzena dauka Ausubelen ikaskuntza esanguratsuekin. Izan ere, honen ustez, umeei ikasten dituzten kontzeptu berriek, jada lehenagotik barneratuta dituzten kontzeptuekin erlazionatzen direnean gertatzen da ikasketa esanguratsua (Ausubel, 1968)

III. AURREKARIAK

Arestian esan bezala, ahozotasunak ahoz aho transmititzeari deritzo, idazketa aurreko garaian ezinbestekoa izan zena, baina, idazketaren sorrerarekin indarra galtzen joan dena. Proiektu honen bidez, ahozkoari emango zaio orain arte idazketak hartu duen garrantzia. Gogoan izan behar dugu bata ez dagoela bestearen menpe, baizik eta biek euren osotasunean, aberasten dutela hizkuntza. *“Idazketak distantziatzeko pentsaera silogistikoa sortzen laguntzen du idazketarik gabeko kulturek errealitateari lotutako pentsamendua erabiltzen duten bitartean”* (Rodriguez, 1993).

Gainera, ahozotasunak onura ugari ekar ditzake. Besteak beste, ahozko adierazpena hobetzea, komunikazio estrategia eraginkorrak baliaraztea, sormena bultzatzea, jendaurrean egoteko eta hitz egiteko oztopoak gainditzea etab. (Gipuzkoako

bertsozale elkarte, 2011).

Fito Rodriguezek, *“Ahozkaritzaren ekoizpena hezkuntzan: Bertsolaritza, ipuingintza eta beste zenbait adibide”* artikuluan (Rodriguez, 1993), On Manuel Lekuonak egindako lana goraipatzen du. Izan ere, arreta alfabetatzeari zuzenduta zegoenean, ahozkotasanari eta euskal kulturari bere lekua eman zion.

Pena bat da, gaur egun hezkuntza arloan, horrela ez izatea eta irakasle askok, ahozkotasuna kalean ikasten den zerbait dela pentsatzea, bigarren maila batean utzita. Hau dela eta, ume askok adierazteko zein komunikatzeko arazoak dituzte, hau da, hitz egiteko gai diren arren, mintzatzeko ez dira gai. *“Lehen-lehenik sentimenduak modu sakonean adierazteko indarra bereganatu behar du haurrak; ez du soilik hitz egiten ikasi behar, mintzaten ere ikasi behar du. Gorputz eta arimaz zerbait esatea da mintzatzea”* (Igerabide, 1993)

Arazo honi aurre egiteko nahian, proiektu honetan, Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan ahozko hizkuntza lantzeko, bertsogintza eta koplagentza erabiliko da baliabide didaktiko gisa. Kontuan izan behar dugu bertsolaritza eta koplaritza landu beharrean, bertsogintza eta koplagentza landuko ditugula. Hau da, bertsoak etxean prestatutakoak izango dira eta ez bat- batean sorturikoak.

Aldez, aurretik, esan beharra daukat, holako proiektu bat aurrera eramateko ez garela bertsolariak izan behar. Bertsozalea izatearekin, bertsoen ezaugarriak jakitearekin eta ikasleei motibazioa eta ikasteko gogoia transmititzearekin nahikoa da (Amuriza, 1995).

Baina, ez naiz ni ahozkotasuna eskoletan lantzearen alde dagoen bakarra. Bertsogintza eskoletara eraman zuten aitzindari batzuk ere badaude eta Xabier Amuriza nabarmenatarikoa da. *“Ahozko bizkaieroa eskoletan”* artikuluan (Amuriza, 2003), hizkuntzaren aldetik *“Txilierrota”* ipuina hiru eratara kontatzen du. Lehenengoan, bere etxeko hizkeran kontatzen du, gero, euskalki jasoan, eta azkenik, euskalki jasoan baina ipuina koplari bidez kontatuz. Berak, ipuinen bidez eta koplari bidez, ahozkotasuna eta euskalkiak eskoletara sartzeari proposatu zuen.

Honez gain, Txetxu Pardo dugu, Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle. Berak, *“Bertsogintza baliabide sekuentziala argudiozko testuetan. Lehen hezkuntzako ziklorako proposamen bat”* artikuluan (Pardo, 2012), Lehen Hezkuntzan bertsogintza lantzeko ariketak proposatzen ditu. Bere esanetan, ariketak burutzeko bost fase jarraitu behar dira: lehenengoz, proiektu bat eztabaidatuko da ikasleen artean gero aurrera eramateko; gero, ikasleek argudiozko testua ekoiztuko dute, irakasleak idazketa arazoak eta euren gaitasunak neurtuz; ondoren, taldetan bilduko dira besteen testuak eta bakoitzak idatzi duena begiratzeko, ulertzeko etab.; horren ostean, taldetan ikasitakoari esker eurek idatzitakoa berrikusi eta berridatziko dute; azkenik, irakasleak garapena ebaluatuko du.

Hala eta guztiz ere, bertsogintza proiektu baten sartzen diren eskolek, bertsoak lantzen dituzte L.Hko 4., 5. eta 6. mailetan eta DBHko 1. eta 2. mailetan. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan, aldiz, orain arte, ez da bertsogintza landu nahiz eta Txetxu Pardok lehenengo ziklorako proposamen bat egin. (Gipuzkoako bertsozale elkarte, 2011).

Ezin alde batera utzi, pasa den urtean Irakasle eskolako Ander Aldazabal, Malen Tercero eta Iraide Sanchez ikasleek Haur Hezkuntzarako bertsogintzaren erabilera didaktikoari buruz egindako proiektuak.

IV. METODOLOGIA

Bertsogintzaren eta koplagentzaren erabilera didaktikoa Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan aurrera eramateko metodologia kualitatiboan oinarritu naiz, eta ez kuantitatiboan. Izan ere, metodo kualitatiboa subjektiboa da eta ulermenean eta behaketa naturalean oinarritzen da. Gainera, umeen garapena kontuan hartzeaz gain, kultura eta ideologia ere kontutan hartzen da. Metodo kuantitatiboa aldiz, objektiboa da eta datuetan eta behaketa kontrolatuan oinarritzen da, hau da, ez da garapenean zentratzen baizik eta emaitzetan zentratzen da, ideologia eta kultura alde batera utziz. (Pita eta Pértegas, 2002)

Beraz, Zornotzako Larrea Herri Eskola Publikoan metodologia kualitatiboan oinarritutako bertsogintza eta koplagintzaren erabilera didaktikoa abian jarri nuen, zehazki 6-7 urteko umeen gelan. Bertan, 22 ikasle dira; 10 neska eta 12 mutil. Aipatu beharra dago, eskola honetan Amara Berri sistema ezarrita dagoela eta lan egiteko metodoa txokoen bitartez antolatuta dagoela.

Bertsogintzari eta koplagintzari hasiera emateko, errutinak koplaren bidez lantzea eta ipuina bertsoen bidez lantzea zen nire asmoa. Horretarako, gelako errutinak zeintzuk ziren jakiteko, praktiketako hasierako egunetan behaketa lana egin nuen. Ondorioz, egunero lantzen zituzten errutinak hauek zirela ikusi nuen: asteko eguna, eguraldia, zerrenda, irratia eta eskola amaiera.

Hasteko, arestian aipatutako errutina guztiak koplaren bidez lantzea pentsatu nuen, asteko eguna izan ezik. Horretarako, koplak txikia (bi puntukoa eta 7-6 silabakoa) erabiltzea pentsatu nuen. Izan ere, koplak, bertsoak baino laburragoak dira, eta beraz, ikasteko errazagoak. Baina, asteko eguna zein zen kantatzeko, koplaren ordean, bertsoa (zortziko txikia: lau puntu eta 7-6 silabakoa) erabiltzea egokiagoa zela pentsatu nuen, besteak beste, informazio gehiago sartu behar nuelako bertan eta koplaren batean ez zen informazio guztia sartzen.

Bertsoaren eta koplaren neurriak behin aukeratuta, errutina bakoitzeko doinua bilatu nuen Bertsozale Elkarteko Doinutegian. Doinu batzuek errepikapena dute, beste batzuek, ordea, ez. Kasu honetan, biak erabili genituen, errepikapena darabiltenak eta ez darabiltenak.

XARMANGARRIA ZERA I *

Xar- man- ga- rri- a ze- ra
e- der e- ta gaz- te
ne- re bi- ho- tzak ez du
zu bes- te- rik mai- te
bes- te zen- bait be- za- la
ba- ne- go- ke li- bre
zu- re- kin ez- kon- tze- a
du- da- rik ez nu- ke.

1.irudia.

Beraz, bertso baten bidez, asteko eguna zein zen kantatzeko “Xarmangarria zera I” doinua aukeratu nuen (1.irudia). Bertso hau zortziko txikian abesteko da eta lau puntu ditu. Puntu bakoitzak 13 silaba ditu, hau da, 7-6 silabakoa da.

Gainontzeko errutina guztiak, eguraldia, zerrenda, irratia eta eskola amaiera koplak txikien bidez kantatzeko prestatu nituen. Koplak hauek, bi puntu dituzte eta puntu bakoitzak 13 silaba ditu, beraz, 7-6 silabakoa dira. Eguraldia abesteko “orriak airez aire” doinua aukeratu nuen (2.irudia), zerrenda abesteko “Ai gure antzinako guraso nobleak” (3.irudia), irratia abesteko “Antton eta Maria I” (4.irudia) eta eskola amaitu dela abesteko “Maritxu nora zoaz I” (5.irudia) doinua erabiltzea pentsatu nuen.

ORRIAK AIREZ AIRE (G) *

Musical score for "ORRIAK AIREZ AIRE (G) *". The score is written in G major (one sharp) and 3/4 time. It consists of a single melodic line with lyrics in Basque. The lyrics are: O- rri- ak ai- rez ai- re / i- far- txo dul- tze- a / i- far- txo dul- tze- a / lan- da- mintz e- de- rre- an / do- an e- rre- ke- a / do- an e- rre- ke- a.

2.irudia

AI GURE ANTZINAKO *

ESNE SALTZAILEARENA
SARATARRA NAIZELA

Musical score for "AI GURE ANTZINAKO *". The score is written in G major (one sharp) and 3/4 time. It consists of a single melodic line with lyrics in Basque. The lyrics are: Ai gu- re an- tzi- na- ko / gu- ra- so no- bli- ak / zi- tuz- ten le- gi- ak / guk hain- bat tra- ba- ju- ta / fe- txa- rik ga- bi- ak / a- de- lan- tu- a de- la / us- te du jen- di- ak / tre- na ta tran- bi- ak / on- do- ren da- to- ze- nak / ez di- ra ho- bi- ak / on- do- ren da- to- ze- nak / ez di- ra ho- bi- ak.

3.irudia.

ANTTON ETA MARIA (N) *
DONOSTIAN SOLDADO
BATETIKAN KORROSKA

Musical score for 'ANTTON ETA MARIA (N) *'. The score is written in G major and 3/4 time. It consists of a vocal line and a piano accompaniment. The lyrics are: Ber-tsu be- rri ba- tzu- en no- a e- mai- te- ra Ban- ka hor- tan su- je- tak ar- du- ra bai- ti- ra An- tton e- ta Ma- ri- a xan- gri- ne- tan di- ra us- te ga- be gai- xo- ak tron- pa- tu bait di- ra el- ga- rri so- be- rax- ko kon- fi- a- tu di- ra.

4.irudia.

MARITXU NORA ZOAZ II (G)

Musical score for 'MARITXU NORA ZOAZ II (G)'. The score is written in G major and 3/4 time. It consists of a vocal line and a piano accompaniment. The lyrics are: Ma- ri- txu no- ra zo- az e- der ga- lant ho- ri i- tu- rri- ra Bar- to- lo nai ba- de- zu e- to- rri i- tu- rri- an zer da- go ar- do- txo txu- ri- a bi- ok e- dan- go de- gu nai de- gun gu- zi- a.

5.irudia.

Doinuak aukeratuta nituenean letrak idazten hasi nintzen. Betiere, umei egokitutako hitzak erabiliz eta euren ulermen mailara egokituz (2.eranskina).

Errutinekin amaitu nuenean, ipuinaren sekuentzializazioarekin hasi nintzen. Ipuina aukeratzea ez zen batere erraza izan. Izan ere, Amara Berri sisteman, hango irakasleak esanda, ez zaio programazio jakin bati jarraitzen, programazioa txokoka egiten da. Beraz, lehenengo zikloko irakasleekin batu nintzen, eta hoberena, musika irakasleak urtero kontatzen zuen ipuina hartzea zela erabaki genuen. Alde batetik, musika ikasgaiari irakasleak txokoetan antolatuta ez zeudelako eta gela guztiarekin landu ahal izango nuelako. Beste aldetik, ipuin didaktikoa zelako eta umeek, musika- noten kokapena eta izenak ikasi ahal zituztelako. Ipuina, Pentagrama Enea deitzen da eta Antton Jauregi, Urnietako Egape Ikastolako musikako irakaslea, da horren egilea. Ipuin moderno bat da eta musikaren irakurketaren hastapenak atsegino eta eraginkorrago bihurtzeko asmoz sortua izan zen 2002. urtean.

Beraz, errutinetan erabilitako metodologian oinarrituz, bertsoen bidezko ipuin baten sekuentzializazioan pentsatu nuen. Bertso hauek, zortziko txikian (lau puntu eta 7-6 silabakoa) kantatzea aproposena zela pentsatu nuen. Alde batetik zailtasun-maila igotzeko asmoz, eta bestetik, informazio gehiago sartzeko aukera eskaintzen zutelako.

Ondoren, doinu aproposa bilatu nuen Bertsozale Elkarteko Doinutegian: “nire senarrarekin I” (6.irudia). Doinu honek azken puntuan errepikapena duenez, umeei errazagoa egiten zaie.

Doinua aukeratuta nuenean bertsoen letrak idazten hasi nintzen. Errutinekin esan dudan moduan, umeei egokitutako hitzak erabiliz eta euren ulermen mailara egokituz idatzi nituen (2.eranskina).

Lehenengo, ipuinaren sarrera bertso baten idatzi nuen, eta gero, musika nota bakoitzeko bertso bana idatzi nuen. Beraz, guztira, zortzi bertso. Bertso bakoitzak bere irudia/marraskia dauka eta ikasleak irudi horietaz baliatu beharko dira kantatu behar duten bertsoaz oroitzeko. Azkenik, ipuinaren amaieran datorren abestia errespetatzea eta ipuinaren sekuentzializazioan ere berdin kantatzea pentsatu nuen (2.eranskina).

NERE SENARRAREKIN I (G) *
AKERRAREN ADARRAK

Ne-re se-na rra-re kin
dau-ka dan bi-zi-tza
kan-ta-tu ko det i-nor
i-ka-si ba-li-tza
fi-na i-zan-go za-la
e-man zi-dan hi-tza
a-ke-rra-ren a-da-rrak
be-ze-la ga-bil-tza.

6.irudia

Hala eta guztiz ere, bertsoak hobeto ulertzeko eta erraztasun handiagorekin ikasteko aldaketa batzuk egin nituen. Esate baterako, ipuinak dituen irudi errealak ez nituen mantendu eta euren gehiago gustatzen zitzaizkien irudiak erabili nituen motibazioa eta arreta lortzeko, pertsonaien izenak mantendu beharrean, musika-noten izen errealak erabili nituen eta azkenik, pentagraman pisuak eta tarteak daudela esan beharrean, bertsoen bidezko ipuinean denak ziren pisuak, egia esanda.

V. ESKU- HARTZEA

V.1 PROZESUAREN AZALPENA ETA EGUNEROKO BEHAKETA

Goizeko errutinen koplak eta bertsoa eta ipuinaren sekuentzializazioaren bertsoak era ezberdinetan landu nituen. Alde batetik, errutina guztiak koplak txikien bidez landu genituen, asteko eguna izan ezik, beraz bertsoaren bidez landu genuelako. Bestalde, ipuina bertsoen bidez landu genuen. Horregatik, lehenengo errutinak zelan landu nituen azalduko dut, eta ostean, ipuina.

V.1.1 Errutinetarako koplen eta bertsoaren prozesua

Errutina guztiak, Koplak txikien bidez, taldean, denok batera kantatzekoak ziren. Baina, asteko eguna kantatzeko, aldiz, bertso bat zenez, eta beraz, luzetxoagoa (zortziko txikia), ezberdin kantatzen zuten. Egun bakoitzean gelakide batek arduradunaren papera hartzen zuen eta arbelera hurreratzen zen bertsoaren lehenengo puntua (sarrera) kantatuz, ondoren, arduradunak bigarren puntuko lehenengo lerroa abesten zuen, galdera bat baitzen, eta bigarren lerroa talde guztiak kantatzen zuen, galderei erantzuna emanez, arduradunak izan ezik. Horrela, bertsoa bukatu arte.

Prozesu honekin, otsailaren 5ean hasi nintzen 6-7 urteko umeen gelan. Lehenengo egun horretan, ikasleekin, asteko eguna eta eguraldia landu nituen goizean, eta eskola amaierako koplak arratsaldean. Bigarren eguna, lehenengo egunean ikasleek landutakoa finkatzeko erabili nuen. Hirugarren egunean, irratira joateko koplak gehitu nien eta laugarren egunean zerrenda. Horrela, apurka- apurka, eurek egunero lantzen zituzten errutinak, kopletan lantzen joan ziren. Laugarren egunetik aurrera, egunero arestian aipatutako errutina guztiak lantzen hasi nintzen eurekin. Gutxi gorabehera, hiru hilabeteetan ibili ginen errutinak koplen bidez, asteko egunaren kasuan bertsoaren bidez, egunero lantzen, zehazki, apirilaren 23ra arte.

Hasierako asteetan, asko kostatzen zitzaizkien doinuak gogoratzea. Izan ere, errutina bakoitzak doinu berezia zeukan, beraz, bost doinu ezberdin ikasi behar izan zituzten.

Gainera, letrak ikastea ere ez zen batere erraza izan. Hala eta guztiz ere, nik pentsatzen nuen baino arinago barneratzen joan ziren informazio guztia. Heldu zen eguna, non bertsoen letrak zekizkiten baina doinuak gogoratu behar nizkien. Azkenean, martxoaren 2an gutxi gorabehera, errutina guztiak gaindituta zituztela konturatu nintzen, bai letra aldetik baita doinuen aldetik ere.

Aipatu beharra daukat, zerrenda ikastea pilo bat kostatu zitzaizela. Mutil eta neska guztiak etortzen zirenean bi kopla kantatu behar zituzten (neska guztiak etorri zirela adierazteko eta mutil guztiak etorri zirela adierazteko) eta horiek oso ondo ikasi zituzten, gainontzeko errutinak bezala. Arazoa zettorren, ikasleren bat gaixorik etxean gelditzen zenean. Demagun mutil bat falta zela. Kasu honetan, hiru kopla kantatu behar zituzten: bat, neska guztiak eskolara etorri zirela adierazteko, beste bat, zenbat mutil etorri ziren adierazteko eta azkena, falta zena gaixorik zegoela adierazteko.

Baina, falta ziren nesken edo mutilen arabera, mutil edo neska gehiago edo gutxiago etortzen ziren gelara. Horregatik, Kopla hauek abesteko zailak ziren, egunero etortzen ziren nesken edo mutilen kopuruaren arabera koplen letrak moldatu behar zirelako, neurria guztiz errespetatzeko.

Azkenik, goraiatu behar dut ume gehienek izan duten prestasuna eta motibazioa errutinen aurrean (3.eranskina).

V.1.2 Ipuinaren sekuentzializaziorako bertsoen prozesua

“Pentagrama Enea” ipuinean, zortzi pertsonaia agertzen dira eta bakoitzak gauza konkretu bat kontatzen du. Ipuinaren sekuentzializazio honetan, pertsonaia bakoitzak irudi bat izango du, beraz, zortzi irudi ezberdin egongo dira eta irudi bakoitzeko bertso bat egongo da, guztira, zortzi bertso. Amaieran, benetako ipuinak duen abestia errespetatuko da eta berdin kantatuko da azken bertsoaren ostean.

Martxoaren 3an, errutinak ikasi eta ondo barneratu ondoren, ipuinaren sekuentzializazioarekin hasi nintzen. Martxoaren lehenengo astean zehar, lehenengo bi bertsoak kantatu nizkien eta aste horretan bi bertso horiek barneratzen ibili ziren ikasleak. Hurrengo astean, hurrengo biak lantzen ibili ziren. Hurrengoan, bosgarren eta

seigarren bertsoa lantzen ibili ziren eta martxoaren azken astean, azken bi bertsoak landu zituzten. Azken finean, astero bi bertso irakastearen dinamika hartu nuen eta halaxe egin ere. Hala eta guztiz ere, apirilaren 23ra arte praktikatzen ibili ziren bertsoak eta koplak guztiz barneratu arte.

Egia esateko, ipuina bertsoan ikastea errutinak baino gehiago kostatuko zitzaiela pentsatzen nuen, baina ez zen horrela izan. Eurretan askok bertsoen doinua arin batean ikasi zuten eta bertsoen letrak ere aitaren batean ikasi zituzten. Dena den, errutinak landu zituztenean, bertsoak eta koplak lantzen zituzten lehenengo aldia zen eta ipuina landu zutenean jada errutinen praktika zuten. Beste aldetik, bertsoak ikasteko gehienek demostratu zuten abiadura harrigarria izan zen, baita memoria ere (3.eranskina). Ikasleak irudiez baliatzen ziren kantatu behar zuten bertsoa zein zen gogoratzeko, baina heldu zen momentua non irudi barik ere kantatzen zituzten bertso guztiak.

Umeen motibazioa eta ikasteko nahia itzelezkoa izan zen. Astero bi irudi berri erakusten nizkien, hau da, bi bertso berri ikasten zituzten, eta gehiago jakiteko irrikaz zebiltzan. Batzuek, astero bi irudi baino gehiago kontatzea nahi zuten. Adin honetako ikasleek pazientzia gutxi dute normalean eta astero nituen atzetik gainontzekoak noiz kontatuko nituen galdezka. Egia esan, oso arin ikasi zuten ipuina eta azken egunetan aspertu samar zebiltzan hainbeste aldiz ipuina abesteagatik. Horregatik, azken astean ipuinari lotutako beste ekintza ezberdin bat egitea pentsatu nuen.

Apirilaren azken astean, 27ko astean hain zuzen, hainbat egunetan egindako lana txosten batean biltzea eta ikasleek etxera oroitzapen moduan eroatea bururatu zitzaidan. Horretarako, bertso bakoitzeko fitxa bana prestatu nuen. Fitxetan, bertsoak osatu barik agertzen ziren, batzuetan errimak falta ziren, bestetan puntuen bigarren esaldiak, etab. Lehenengo bertsoa, aldiz, eurek idatzi zuten bertso osoa. Beraz, aste horretan zehar, ikasleek ipuinaren zortzi bertsoak osatzen ibili ziren. Azken egunean, ipuinaren portada eta kontra-portada eman nizkien eta txostenak etxera eramateko grapatu genituen. Oso pozik zeuden eurek egindako lana eta ikasitakoa fisikoki eta zertarako bat zuela ikusiz (2.eranskina).

VI. EMAITZAK

6-7 urteko gelan aurrera eramandako bertsogintzaren eta koplagentzaren erabilera didaktikoa ebaluatzeko, gurasoek betetako galdetegiak, musika eta matematika irakasleek betetako galdetegiak eta nik grabatutako bideoak baliatu nintzen (1.eranskina).

VI.1 GURASOEN GALDETEGIEN EMAITZAK

Gurasoei dagokienez, galdetegiaren emaitzei begira, gehienak ez ziren bertsozaleak, baina erdia baino gehiago ohartu ziren euren seme-alabak gelan koplak eta bertsoak lantzen egon zirela. Guraso gehienek, euren seme-alabak entzun zituzten klasean landutako bertsoak eta koplak pozik abesten, nahiz eta batzuk oharretan jarri, seme-alaba lotsatia zela eta ezer gutxi kontatzen zuela etxean, are gutxiago abestu. Oro har, gehienek, ondo baloratu zuten bertso eta koplak erabilera didaktikoa eskolan eta beste gai batzuk koplak eta bertsoen bitartez irakastearen alde zeudela jakinarazi zuten.

Hala eta guztiz ere, guraso askok betetako galdetegiak ez zidaten askorik lagundu. Izan ere, guraso asko ez ziren euskaldunak eta gainera ez zuten interes handirik jartzen. Beraz, inkesta batzuk ganora barik eginda zeuden, eta gainera, galderei begira inkoherentzia ugari ikusten zen. Hala nola, batzuk, bertsozaleak zirela jarri zuten euskara jakin barik edo euren seme-alabek ez zituztela klasean ikasitako koplak eta bertsoak etxean kantatzen, baina gero, pozik kantatzen zituztela erantzun zuten, etab. Kontuan izan behar dugu eskola publikoa zela eta bertan atzerritar asko egoten direla, beraz bai euskararekin bai erdararekin ere, ulertzeko eta komunikatzeko, arazoak zituzten.

VI.2 IRAKASLEEN GALDETEGIEN EMAITZAK

Irakasleei dagokienez, matematika irakasleak, bertsogintza eta koplagentza lantzen ibili ginen bitartean, taldea oso ondo ikusi zuela adierazi zuten. Izan ere, hobekuntza batzuk ikusi zituen; alde batetik, motibatuta eta energiak beteta ikusi zuten taldea, eta bestetik, ikasleek arteko lana sendotu zela nabaritu zuten. Bakarka ikasleak ebaluatzeko

orduan, aldiz, gehienek bost puntutik 4 edo 5 izan arren, seik bostetik 3 bat izan zuten. Irakasle honen ustez, gai honen inguruan oso ondo ibili zirenak, hizkuntzan ere ondo zebiltzanak ziren. Kili-kolo ibili zirenak, ordea, hizkuntzan arazok zituztenak ziren, bai ulermen aldetik eta baita irakurmenaren aldetik ere. Horregatik, batzuek, beste batzuek baino motibazio gehiago izan zuten, kantatzen zutena ulertzen zutelako, alegia. Hala eta guztiz ere, koplak eta bertsoen doinuei begira, batzuk beste batzuk baino aproposagoak iruditu zitzaizkion.

Musika irakasleak ere, aurrekoaren antzera, taldea oso ondo ikusi zuen. Honen ustez, bertsogintzak eta koplak, autonomia garatzen, erritmoa sakontzen, hizkuntza aberasten (hiztegia, errimak) eta motibatuta egoten lagundu zieten. Irakasleak bakarka ebaluatzeko orduan, matematika irakaslearekin konparatuta, honek, nahiko ondo ebaluatu zituen ikasle guztiak bost puntutik 4 edo 5 jarriz. Bik bakarrik izan ziren 3 bat izan zutenak. Kasu honetan, musika irakaslea, matematika irakaslearekin bat zetorren ebaluaketan. Hizkuntza aldetik, txarto zihoazen eta gainera jarrera oso txarra zuten. Ipuinaren bertsoen doinuei dagokienez, aproposak iruditu zitzaizkiola adierazi zuen.

Irakasleen emaitzekin bukatzekotan, aitortu behar dut biei metodologia ona eta dinamika ezberdina iruditu zitzaaien arren, jakintasun faltagatik, ez zutela euren burua bertsogintza eta koplak lantzen ikusten komentatu zidatela.

VI.3 BIDEOETATIK ATERATAKO EMAITZAK

Azkenik, nik hiru hilabete zehar eta bideoetan ikusitakoa ebaluatuko dut. Goizeko errutinei dagokienez, doinuei garrantziaz ohartu naiz. Alde batetik, doinua zenbat eta alaiagoa izan, euren orduan eta energia handiagorekin kantatzen zuten. Hau argi eta garbi ikus daiteke eskola amaierako koplak "Maritxu nora zoaz" doinuekin. Bestalde, doinu batzuek zuten errepikapenekin nahastu egiten ziren, hala nola, irratia aurkezteko koplak erabilitako doinuekin. Hala eta guztiz ere, hau ez zen doinua ez zekitelako, baizik eta batzuek arreta galtzen zutela. Asteko eguna zein zen kantatzekoa ere, batzuetan, egunaren izena pentsatu behar zuten, baita aurreko eguna eta ondorengo eguna zein zen ere. Horregatik, batzuetan, kantatzeari utzi egiten zioten

une batez, zer esan behar zuten pentsatzeko. Orduan, batek behin esanda denek jarraitzen zioten. Zerrendarekin, eguraldiarekin eta etxera joateko koplarekin, ordea, ez zuten arazorik izan grabaketa egunean, baina esan behar dut, zerrenda ikastea asko kostatu zitzaiela nahiz eta grabaketan ez nabaritu (3.eranskina).

Ipuinaren sekuentzializazioari dagokionez, oso ondo zekizkiten bertso guztiak, bai doinuaren aldetik eta baita letraren aldetik ere. Gainera, bertso batetik bestera pasatzeko jotzen zituzten bi txaloak, erritmoan primeran sartzen ziren. Kostatzen zitzaien gauza bakarra, eta bideoan argi eta garbi ikus daiteke, azken abestian SOL nota abestea zen. Hortaz aparte, bertsoak luzetxoak zirenez, ipuina luze samar egiten zitzaien eta hasieran altu eta ozen kantatzen zuten arren, gero eta bolumen baxuagorekin abesten amaitzen zuten. Horregatik, bolumena igotzeko keinua egiten nien noizean behin (3.eranskina).

VII. ONDORIOAK

VII.1 HURRENGO LANAK

Ikasleen inplikazioa eta emaitzak ikusi ostean, bertso-gintza eta koplago-gintza Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan lantzea posible dela esan dezaket. Beraz, orain 9 urtetik gorakoek eskoletan bertso-gintza eta koplago-gintza lantzen duten bezala, (Gipuzkoako bertsozale elkarteak, 2011), 9 urtetik beherakoek ere landu dezaketena demostratu dut.

Izan ere, hiru hilabete hauetan, puntu positibo gehiago ikusi ditut negatiboak baino. Esate baterako, ikasleek, oroimena, ahoz-kotasuna, erritmoa, hiztegia, autonomia, adierazpena, etab. landu dituzte, eta lanketa horrek, betiere ikasleen inplikazioaren arabera noski, hobekuntza dakar. Dena den, urte osoan metodologia hau erabiliz gero hobekuntza nabariagoak ikusiko lirateke.

Hurrengo lanei begira, bertsogintzaren eta koplagintzaren erabilera didaktikoaren emaitza baikorra ikusirik, Haur Hezkuntzatik landu beharreko sistema dela uste dut, eta nik aukera badaukat, halaxe egingo dut. Era honetan, ikasleek, Lehen Hezkuntzara, ahozko maila hoberekin helduko lirateke.

Hala eta guztiz ere, ikasketa esanguratsuagoa izateko, gauza batzuk aldatuko nituzke. Ikasle taldearen arabera (hizkuntza maila, jarrera, interesa), ipuinaren sekuentzializatorako bertsoak erabili beharrean koplak erabiliko nituzke. Alde batetik, arinago kantatzen direlako, eta bestetik, ipuina dinamikoagoa egiten zaielako. Nire kasuan, ikasleak, errutinak koplak txikien bidez kantatzen hasi ziren, eta egoera berri horren aurrean ondo erantzun zuten, ipuinaren sekuentzializazioa bertsoen bidez (zortziko txikia) egitea erabaki nuen. Ez zuten arazorik izan. Doinuei dagokienez, errutinetan ez nuke hainbeste doinurik erabiliko. Hobe da errutina guztiak doinu batez abestea eta hori behintzat ondo barneratzea. Azkenean, errutina bakoitzeko doinua ikastea asko kostatu zitzaien nahiz eta nire ikasleek doinu guztiak ikasi zituzten.

Erronka honen aurrean, irakasle bertsozaleak, koplak eta bertsoak lantzen animatuko nituzke. Ikusi bezala, proiektu hau aurrera eramateko, ez gara bertsolariak izan behar, baina bai bertsozaleak. Izan ere, ikasleek, irakasleok lantzen duguna gogo handiz eta gustura eskaintzen dugula sentitu behar dute, eurak ere motibatuta egoteko. Gainera, bertsogintza eta koplagintza lantzeko proposamena denez, eta ez bertsolaritza eta koplaritza, bai bertsoak eta baita koplak ere, etxean prestatu ahal izango dira. Beraz, lasai askoz, eskolan landu aurretik, neurria, errimak, silabak, letrak etab. prestatzeko aukera egon badago.

VII.2 ESKERRAK

Bukatu aurretik, eskerrak eman nahi dizkiot lan hau egiten ahalbidetu didaten guztioi. Lehenengoz, Larrea Eskola Publikoko irakasleei, bereziki, matematika eta musika irakasleei. Izan ere, euren malgutasuna eta eskuzabaltasunagatik izan ez balitz, hau egunero gelan lantzea ezinezkoa izango zitzaidakeen.

Bigarrenez, gurasoei, eta nola ez, gurasoen seme-alabei. Egia esan, euren prestasunagatik eta jarritako interesagatik izan ez balitz, proiektu hau aurrera eramatea zaila izango zatekeen. Gurasoei esker ere, eskolaz kanpo bertsoak eta koplak kantatzen jarraitzen zuten ala ez jakiteko aukera izan nuen.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiot, GRAL-eko Txetxu Pardo irakasle tutoreari, besteak beste, lanaren gidaritzagatik. Izan ere, hasiera-hasieratik laguntza eskaini zidan eta interes handia jarri zuelako lan honetan. Ezin aipatu barik utzi, lanean zehar Irati Laita, nire taldekideak, momentu oro eskainitako laguntza. Beraz, berari ere eskerrik asko.

VIII. BIBLIOGRAFIA

- AMURIZA, X. (2003): *Ahozko bizkaiera eskoletan*. Ahozotasuna aztergai. Bilbo. Mendebaldea kultura elkarte.
- AMURIZA, X. (1995): *Zu ere bertsolari*. Bilbo. Orain S.A. Egin biblioteka.
- JAUREGI, A. (2002): *Pentagrama Enea*.
<https://es.scribd.com/doc/48694532/PENTAGRAMA-ENEA> [2015-03-14]
kontsultatua
- AUSUBEL, D. (1968): *The Psychology of Meaningful Verbal Learning*. New York. Grune & Stratton.
- BERTSOZALE ELKARTEA (2011): *Gu ere bertsoan I*. Tolosa. Gipuzkoako bertsozale elkarte.
<http://www.irun.org/Enlaces/00015859.pdf> [2015-04-06] kontsultatua
- BERTSOZALE ELKARTEKO DOINUTEGIA.
<http://bdb.bertsozale.eus/es/web/doinutegia/bilaketa> [2015-02-07, 2015-05-02] kontsultatua.
- CALVO, A. (2000): *Poética de la oralidad*. Paul zumthor. Nueva revista 68 zenbakia. Madrid.
<http://www.nuevarevista.net/articulos/poetica-de-la-oralidad-paul-zumthor>
[2015-03-12] kontsultatua.
- DOLZ, J., GAGNON, R. & MOSQUERA, S. (2009): *La didáctica de las lenguas: una disciplina en proceso de construcción*. Universidad de Suiza.
http://www.researchgate.net/profile/Santiago_Mosquera_Roa/publication/268980252_La_didctica_de_las_lenguas_una_disciplina_en_proceso_de_construccion/links/5481907c0cf22525dcb622a1.pdf [2015-04-09] kontsultatua.

- HAVELOCK, E. (1996): *La musa aprende a escribir. Reflexiones sobre oralidad y escritura desde la Antigüedad hasta el presente*. Paidós editorial. Barcelona.
- Igerabide, J. K. (1993): *Haurra eta ahozkotasuna in Bularretik mintzora: haurra, ahozkotasuna eta literatura*. (225-241orr.). Erein. Euskal Herria.
- Martí, E. (2008): *Procesos cognitivos básicos y desarrollo intelectual entre los 6 años y la adolescencia in desarrollo psicológico y educación: Psicología evolutiva*. Alianza editorial. S. A. Madrid.
- Ong, W. J. (1987): *Oralidad y escritura*. Fondo de cultura económica S.A. de C.V. Mexico.
- PAPALIA, D., WENDKOS, S. & Duskin, R. (2004): *Infancia temprana (228-245orr.) e infancia media (292-312orr.) in desarrollo humano*. McGraw Hill-Companies. Mexico.

http://www.jorgeturenne.com/uploads/6/3/5/7/6357007/175696292_desarrollo-humano- papalia.pdf [2015-04-21, 2015-05-17] kontsultatua.
- PARDO, Tx. (2012): *Ikasgela, hizkuntzaren ikas-irakaskuntzarako ikerketa-gune. V. mintegia. Bertsogintza baliabide sekuentziala argudiozko testuetan. Lehen hezkuntzako ziklorako proposamen bat*. (231-241 orr.). Donostia. UPV-EHU.
- Pita, S. eta Pértegas, S. (2002): *Investigación cuantitativa y cualitativa*. Unidad de Epidemiología Clínica y Bioestadística. Complejo Hospitalario Universitario de A Coruña. España

http://www.fisterra.com/mbe/investiga/cuanti_cuali/cuanti_cuali.asp [2015-05-11] kontsultatua.

- RODRIGUEZ, F. (1993): *Ahozkaritzaren ekoizpena hezkuntzan: Bertsolaritza, ipuingintza eta beste zenbait adibide*. Gasteiz. Eusko Ikaskuntza Hezkuntza Sarean.
<http://www.euskomedia.org/PDFAnt/congresos/12/12321325.pdf> [2015-02-17]
kontsultatua.
- RODRIGO, M. J. (2008): *Desarrollo intelectual y procesos cognitivos entre los 2 y los 6 años in desarrollo psicológico y educación: Psicología evolutiva*. Alianza editorial. S.A. Madrid.

IX. ERANSKINAK

IX.1 ERANSKINA: GALDETEGIAK

IX.1.1 Matematika irakaslearen galdetegia

TALDEARI BURUZKO GALDERAK:

- 1) Nola ikusi duzu taldea koplagintzan eta bertsogintzan aritu garen denboraldian? (1etik 5era borobildu egokien uste duzuna)**

Oso txarto (1)	Txarto (2)	Nahikoa (3)	Ondo (4)	Oso ondo (5)
----------------	------------	-------------	----------	--------------

- 2) Errutinetan erabilitako doinuak proposak izan dira?**

Oso txarto (1)	Txarto (2)	Nahikoa (3)	Ondo (4)	Oso ondo (5)
----------------	------------	-------------	----------	--------------

- 3) Ipuinaren sekuentzializazioan erabilitako doinua aproposa izan da?**

Oso txarto (1)	Txarto (2)	Nahikoa (3)	Ondo (4)	Oso ondo (5)
----------------	------------	-------------	----------	--------------

- 4) Matematika aldetik, aurrerapenik (adibidez, silabak neurtzen edo kontatzen, ...) ikusi al duzu taldean?**

BAI	EZ
-----	----

Zeintzuk?.....
.....

- 5) Eta orokorrean, aurrerapenik ikusi al duzu taldean (adibidez: autonomia garatzen, hizkuntza aberasten, erritmoan sakontzen, ikasleen arteko komunikazioa handitzen,...)?**

BAI	EZ
-----	----

Zeintzuk?.....
.....

6) Motibatuta ikusi duzu taldea?

BAI	EZ
-----	----

7) Motibatuta ikusi duzu zeure burua?

BAI	EZ
-----	----

8) Hurrengo ikasturtean koplak eta bertsoak kontuan edukiko zenituzke zeure irakasgaia prestatzerakoan?.....

.....

9) IKASLE BAKOITZAREN EBALUAZIOA EGIN EZAZU MESEDEZ (1etik 5era, X batekin markatu)

KURTSOA	IZENA	1	2	3	4	5
LH 1	DAVID					
LH 1	NAHIA					
LH 1	NEKANE					
LH 1	NAROA					
LH 1	CRISTIAN					
LH 1	LANDER					
LH 1	EIDER					
LH 1	ALEXANDRA					
LH 1	UNAX					
LH 1	EKAIN					
LH 2	HUGO					
LH 2	URKO					
LH 2	MARIAM					
LH 2	ACHARAF					
LH 2	EKAIN					
LH 2	ANER					
LH 2	SASHA					
LH 2	NAHIA					
LH 2	KATTALIN					
LH 2	ENEKO					
LH 2	AYA					
LH 2	EKAIN					

Bestelako oharrak / Iradokizunak:

.....

Eskerrik asko!

Zornotza, 2015-04-17

IX.1.2 Musika irakaslearentzako galdetegia

TALDEARI BURUZKO GALDERAK:

- 1) Nola ikusi duzu taldea bertsogintzan aritu garen denboraldian? (1etik 5era borobildu egokien uste duzuna)

Oso txarto (1)	Txarto (2)	Nahikoa (3)	Ondo (4)	Oso ondo (5)
----------------	------------	-------------	----------	--------------

- 2) Bertsogintzaren jardunak taldeari lagundu dio autonomia garatzen?

Oso txarto (1)	Txarto (2)	Nahikoa (3)	Ondo (4)	Oso ondo (5)
----------------	------------	-------------	----------	--------------

- 3) Bertsogintzaren jardunak taldeari lagundu dio hizkuntza aberasten (lexikoa, jatorrizko esaldiak ikasten, ...)?

Oso txarto (1)	Txarto (2)	Nahikoa (3)	Ondo (4)	Oso ondo (5)
----------------	------------	-------------	----------	--------------

- 4) Bertsogintzaren jardunak taldeari lagundu dio erritmoa sakontzen?

Oso txarto (1)	Txarto (2)	Nahikoa (3)	Ondo (4)	Oso ondo (5)
----------------	------------	-------------	----------	--------------

- 5) Ipuinaren sekuentzializazioan erabilitako doinua aproposa izan da?

Oso txarto (1)	Txarto (2)	Nahikoa (3)	Ondo (4)	Oso ondo (5)
----------------	------------	-------------	----------	--------------

- 6) Nola ikusi duzu zeure burua bertsoak lantzen ibili garen denbora tartean?

Oso txarto (1)	Txarto (2)	Nahikoa (3)	Ondo (4)	Oso ondo (5)
----------------	------------	-------------	----------	--------------

- 7) Bertsoetako neurriak egokiak izan dira zure ustez?

Oso txarto (1)	Txarto (2)	Nahikoa (3)	Ondo (4)	Oso ondo (5)
----------------	------------	-------------	----------	--------------

- 8) Motibatuta ikusi duzu taldea hurrengo ikasturtean koplak eta bertsoak zure irakasgaiari kontuan izateko?

Oso txarto (1)	Txarto (2)	Nahikoa (3)	Ondo (4)	Oso ondo (5)
----------------	------------	-------------	----------	--------------

9) IKASLE BAKOITZAREN EBALUAZIOA EGIN EZAZU MESEDEZ (1etik 5era, X batez markatu)

KURTSOA	IZENA	1	2	3	4	5
LH 1	DAVID					
LH 1	NAHIA					
LH 1	NEKANE					
LH 1	NAROA					
LH 1	CRISTIAN					
LH 1	LANDER					
LH 1	EIDER					
LH 1	ALEXANDRA					
LH 1	UNAX					
LH 1	EKAIN					
LH 2	HUGO					
LH 2	URKO					
LH 2	MARIAM					
LH 2	ACHARAF					
LH 2	EKAIN					
LH 2	ANER					
LH 2	SASHA					
LH 2	NAHIA					
LH 2	KATTALIN					
LH 2	ENEKO					
LH 2	AYA					
LH 2	EKAIN					

Bestelako oharrak / Iradokizunak:

.....

.....

.....

Eskerrik asko!

Zornotza, 2015-04-17

IX.1.3 Gurasoentzako galdetegia

Guraso agurgarriak:

Saioa Morcillo naiz, Lehen Hezkuntzako Graduaren laugarren mailako ikaslea. Aurten, Larrea eskolan burutu ditut praktikak eta zuen seme- alaben gelan sartu naiz. Hiru hilabete hauetan, bertsoak eta koplak lantzen egon gara eguneroko errutinetara moldatuz, baita ipuin baten sekuentzializazioan ere. Egindako lan honek nolako ondorioak izan dituen jakiteko, ikasleak klasean aztertzeaz gain eskolatik kanpo nolako jarrera izan duten jakin nahiko nuke. Horretarako, hurrengo galdetegi hau betetzea eskertuko nizueke. Eskerrik asko aldezturik.

1) Bertsozaleak zarete?

BAI / EZ

2) Eskolan bertsoak eta koplak kantatzen ibili garela ohartu zarete?

BAI / EZ

3) Zuen seme- alabak etxean edo kalean kantatzen ditu eskolan ikasitako koplak eta bertsoak?

BAI / EZ

4) Zuen seme- alaba abesten entzutekotan, pozik abesten ikusi duzue?

BAI / EZ

5) Nola baloratzen duzue bertsoen eta koplaren erabilera zuen seme-alabaren gelan? (1etik 5era borobildu egokien uste duzuna)

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

6) Beste gai bat lantzeko orduan bertsoak eta koplak lantzea gustatuko litzaizueke?

BAI / EZ

7) Zein da zuen balorazioa gelan landu dugun bertsogintzari eta koplagentzari buruz? (1etik 5era borobildu egokien uste duzuna)

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

Inkesta hau bukatutzat emateko, eskertuko nizueke gai honi buruzko edozein iradokizun edo

ohar:.....

.....

.....

Eskerrik asko!

Zornotza, 2015-04-17

Estimados padres y madres:

Soy Saioa Morcillo, estudiante de cuarto curso del Grado de Educación Primaria. Este año he realizado las prácticas en el colegio Larrea y he estado en la clase con vuestros hijos e hijas. Durante estos últimos tres meses, en conformidad con la tutora del aula hemos utilizado la metodología de la oralidad a través de las coplas y los versos tanto en las rutinas diarias como en la secuencialización de un cuento. Por tanto, para poder evaluar la actividad anteriormente mencionada en su total dimensión os agradecería que contestaseis al siguiente cuestionario:

1) ¿Sois aficionados/as a los versos?

SI / NO

2) ¿Os habéis dado cuenta que en el colegio hemos estado cantando versos y coplas?

SI / NO

3) ¿Canta en casa o en la calle las coplas y versos aprendidos en clase?

SI / NO

4) ¿Cuando le oís cantar, le veis contento?

SI / NO

5) ¿Cómo valoráis la utilización de versos y coplas en el aula? (Del 1 al 5 redondea la cifra adecuada)

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

6) ¿A la hora de trabajar algún otro tema en clase, os gustaría que fuese mediante versos y coplas?

SI / NO

7) ¿Cual es en general vuestra valoración sobre lo que hemos trabajado en el aula? (Del 1 al 5 redondea la cifra adecuada)

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

Para finalizar esta encuesta, os agradecería cualquier sugerencia o consejo que me pudieseis dar sobre este tema:.....

.....

.....

Eskerrik asko!

Amorebieta- Etxano, 2015-04-17

IX.2 ERANSKINA: ESKU- HARTZEAN ERABILITAKO KOPLAK ETA BERTSOAK

IX.2.1 Errutinetako koplak eta bertsoa

T: Taldea

A: Arduraduna

ASTEKO EGUNAREN BERTSOA:

Orain asteko egunak **A**

gidari euskara **A**

zein da gaurko eguna? **A**

asteartea (ba)da **T**

zein zen atzoko eguna? **A**

astelehena (bada) hara **T**

zein da biharko eguna? **A**

asteazkena (ba) da **T**

Hemen asteko egun guztiak sar litezke, (ba)da- rekin jolastuz silaben arabera.

Adibidez: osteguna bada, asteazkena da, ostirala bada, eta.

ZENBAT NESKA ETA ZENBAT MUTIL ETORRI DIREN JAKITEKO KOPLAK:
--

Nesken kasuan:

Denak daudenean

Zenbat neska daude gaur?

gaur denak badaude (bis)

ba neskato guztiak

eskolan zaudete (bis)

Neskaren bat falta denean

Zenbat neska daude gaur

bederatzi (neskato)daude (bis)

ia neska guztiak

daudela seinale (bis)

Nesken kopurua aldatu egiten denez, bi zenbakiarekin adibidez “neskato” esan beharko genuke. Baina kasu honetan bederatzi zenbakiarekin ez da “neskato” sartzen. 7-6ko silabizazioa errespetatu behar da.

(Eider) ez da etorri

Gaixorik al dago? (bis)

Kalentura badauka

Ohean hobeto (bis)

Neskaren izena aldatu egiten da segun eta nor dagoen gaixorik.

Mutilen kasuan:

Denak daudenean

Zenbat mutil daude gaur?

gaur denak badaude (bis)

ba mutiko guztiak

eskolan zaudete (bis)

Mutilaren bat falta denean

Zenbat mutil daude gaur?

hamaika(mutiko)badaude (bis)

ia mutil guztiak

daudela seinale (bis)

Mutilen kopurua aldatu egiten denez, bi zenbakiarekin adibidez “mutiko” esan beharko genuke. Baina kasu honetan bederatzi zenbakiarekin ez da “mutiko” sartzen. 7-6ko silabizazioa errespetatu behar da.

(Ekain) ez da etorri

gaixorik al dago? (bis)

kalentura badauka

ohean hobeto (bis)

Mutilaren izena aldatu egiten da segun eta nor dagoen gaixorik.

EGURALDIARI BURUZKO KOPLAK:

Gaurko eguraldia?

eguzki beroa (bis)

Eguzkia egiten duenean.

kaletik ibiltzeko

daukagu gogoia (bis)

Gaurko eguraldia

kanpoan elurra (bis)

Elurra egiten duenean

baina eskolan dugu

berotan sudurra (bis)

Gaurko eguraldia

lainoa/euria ta hotza (bis)

Hotza eta lainoa/euria egiten duenean

baina bero daukagu

barruan bihotza (bis)

IRRATIA AURKEZTEKO KOPLA:

Egunero bezala

dugu irratia

berriak kontatzeko

dugu aitzakia (bis)

ETXERA JOATEKO KOPLA:

Eskola amaitu zaigu

goazen etxera


hemen gauza guztiak

batuta gainera

IX.2.2 Ipuinaren sekuentzializaziorako bertsoak

1.irudia

Musika notak gara
ta ez dugu etxerik
SOLEN IKURRA zaude
zu orain bakarrik
denok biziko gara
hemen oso pozik
Pentagrama Enea
izena harturik (bis)



2.irudia

Bederatzi pisuko
etxe handi omen
ia denok batera
bertan sartzen garen
SOL alkatea naiz ta
agintzen dut hemen
etxea izango dut
hirugarren baten (bis)



3.irudia

MI izena dut eta
naiz futbolaria
partiduan izan dut
lesio larria
herrenka nabil eta
daukat min handia
lehenengo pisua
bai dela egokia (bis)




4.irudia

Laugarren pisua da
LA aitonarena
Salamankatik hona
hartu zuen tren
ailegatu zenean
jada martitzena
SOL semea izan zen
pozik jarri zena (bis)



5.irudia

Ba bosgarren pisuan
Si nota daukagu
urrunik dator ta
sirena jotzen du
zarata egitea
berak du enkargu
ondoan badaukazu
da zure akabu (bis)



6.irudia

RE RE RE rockeroa
daukat nik izena
gitarra jotzen ni naiz
hemengo onena
zarata egitea
beti da problema
pentagramatik kanpo
hori bai faena (bis)



7.irudia

DO nota jausi zaigu
balkoitik behera
ez da batere ona
bere egoera
mugitu ezinik ai!
aurrera ez atzera
bere bila joango
gara portalera (bis)



8.irudia

Azkenik FA etorri da
mamua gauean
gaztelua jausi ta
oin triste klean
Pentagrama Enera
joan da isilean
ta bigarren pisuan
dago bitartean (bis)



Ipuinaren amaierako kanta:

NOTA GUZTIAK PENTAGRAMA ENEAN BILDU ZIRENEAN, RE ROCKEROAK, GUZTIAK
HOBETO EZAGUTZEKO ASMOZ, ABESTI BAT KANTATZEA PROPOSATU ZUEN.

DO lurrean hor dago

RE abesten jo ta ke

MI herrenka alaiki

Fa hegan etorri da




SOL hemengo alkatea







LA aitona maitea

SI beti dago pozik

Eta berriz dator DO

AZKEN ASTEAN EGINDAKO IPUIN TXOSTENA





IX.3 ERANSKINA: EBALUAKETARAKO BIDEO-ARTXIBOAK

IX.3.1 Errutinetarako koplen eta bertsoaren bideoa.

IX.3.2 Ipuinaren sekuentzializaziorako bertsoen bideoa.